BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

211

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 23koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (322/2011-A prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak epatzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (322/2011-A prozedura laburtua) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2011ko ekainaren 9ko eta ekainaren 17ko Ebazpenen kontra aurkeztu da; ebazpen horien bitartez, Tiro polizialeko instruktoreen prestakuntza-aldirako eta trebakuntzaldirako deialdia egiten da eta onartuen zerrenda onesten da, hurrenez hurren. Eta, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegiak jatorrizko administrazio-espedientea bidaltzeko eskatu duela aintzat hartuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin dezaten.

Arkauti, 2011ko azaroaren 23a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.